

## **EROSKI-K SUPERMERKATU BERRIA IREKIKO DU GAUR DONOSTIAKO AMARA AUZOAN**

- **Saltoki berriak elikagai freskoetan espezialista den gama bat eskaintzen du, eta tokiko produktuen alde egiten du**
- **440 metro koadroko salmenta areto bat du, eta 19 langile ditu**

**Donostia, 2021eko maiatzaren 27a.-** [EROSKI](#)k supermerkatu bat ireki du Podavines kaleko 3.ean (lehengo Ogasuneko eraikinean), Amara auzoan. Denda berriak EROSKI/City du izena, eta 440 metro koadroko salmenta aretoa du. Hemeretzi langile arituko dira, formakuntza jaso dutenak freskoen atalean espezializatzeko eta bezeroei arretarik onena eta erantzunak eskaintzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarriarik behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta EAEn 848.000 bazkide inguru ditu; gainera, oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere.

### **Tokian tokiko produktuek garrantzi handia**

*"Produktu freskoen eta tokian tokikoen alde egiten jarraitzen dugu. Ez da bakarrik gure izaeraren ikurra, baizik eta baita herritarren eskakizun gero eta zabalago bat ere COVID-19aren garaiotan",* esan du EROSKI*k iparraldean dituen supermerkatuetako zuzendariak, Ismene Fulgenciok. Eskualdeko 9.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta horiek erosteko 740 milioi eurotik gora erabiltzen ditu urtero.*

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten guneekin. Gainera, atal horretan, produktu espezifikoko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat.

### **Eraginkorragoa eta iraunkorragoa**

Era berean, ingurumen aldetik iraunkorragoa den saltokia da. Denda eredu berri horrek hobekuntzak dakartza klimatizazioan, hozte industrialaren sorkuntzan eta argiztapenean. Hala, berrikuntzetako batzuk baino ez dira gutxiago kutsatzen dutenak hozkailu eraginkorrak, hozte altzariak ixteko modua eta LED argiaren erabilera, zeinek modua ematen baitute saltokiak ingurumenean eragiten duen inpaktua gutxitzeko eta bezeroentzat argi eta tenperatura atseginagoak lortzeko. EROSKIren belaunaldi berriko dendak dagoeneko sare osoko %70 baino gehiago

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

dira; ekoeraginkorragoak dira, eta energia aldetik zenbait neurri dakartzate %35 gutxiago ere murrizten dutenak ohiko supermerkatu baten energia kontsumoa.

### **Janari banatzaileetan lehena EAEn**

EROSKI da liderra EAeko elikagaien banaketan. 406 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu hipermerkatuak, supermerkatuak, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak, baita [online](#) supermerkatua ere. Gainera, sei plataforma logistiko ditu, guztira 118.000 metro koadroko azalera hartzen dutenak.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)